

Mobilizatzeak ez duela ezertarako balio?

Joan den asteko lorpena da: Madrilgo osasungintza pribatizatzeke inoiz diseinatu den planik bortitzena bertan behera geratu da, urte eta hiru hilabete iraun duen mugimendu herritarrari esker. Hona eraginkor suertatu den estrategia ereduaren hainbat gako.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

• **Helburua oso zehatza izatea.**

Madrilgo erkidegoan 2008an inauguratutako sei ospitale publikoren gestioa enpresa pribatuen esku uzteko plana geldiaraztea. Etsaia ere, ondorioz, oso zehatza izan da: plana sustatu eta aurrera eraman nahi zuen Madrilgo Gobernuak –Ignacio González popularraren agindupean–. Proiektuak 5.000 bat langilerengan eta 1.200.000 biztanleren osasun-zerbitzuetan zuen eragina.

• **Proiektuaren argudioak desmuntatzea.** Ez da zaila izan, inongo datu fidagarri eta zehatzik eman gabe “argudiatu” baitzuen Lasquetty Osasun kontseilariak –LOMCEren oinarriak ere diseinatu zituen Faes Fundazio neoliberalerako kideak– ospitaleen kudeaketa pribatizatzeke “beharra”. Sektoreko profesionalak landutako dokumentuetan frogatu dute gezurra dela pribatizatzea eraginkorragoa eta ekonomikoki bideragarriagoa denik eta nahiko argi geratu da interes ideologikoak eta pastela lagunen artean banatzeko nahia zeudela atzean.

• **Langileetatik harago, herritarrek konbentzitzea.** Medikuek, erizain eta ospitaleetako langileek lortu dute Marea Zuria izeneko mugimendua herritarrengana iristea, ulerraraztea osasun publikoa ez dela soilik langileen kontua, herritar guztiok defendatu beharreko eskubidea baizik. Atez ateko lana ere egin dute, osasun zentroetan.

• **Kaleak hartzea, presio egitea, zerbitzurik gabe uztea...** Bost aste iraun zituen erkidegoko medikuen greba mugagabeak 50.000



kontsulta bertan behera utzi eta 6.500 ebakuntza atzeratu zituen, besteak beste. Erabateko sei geldialdi-egun antolatu zituzten eta manifestazioak eta elkarretaratzeak ugariak eta jendetsuak izan dira Madrilgo kaleetan. 2012ko abenduan, 118 osasun zentzoko zuzendaritza taldeek dimititu egin zuten, pribatizazioen aurkako neurri gisa.

• **Antolatzea.** Koordinatuta, plan orokor bat jarraitu dute: diru-bilketak, adituen iritzi eta txostenak, egutegi bat, sinadura bilketa, estrategia mediatikoa (sare sozialak barne)...

• **Oihartzuna lortzea.** Aurretik aipaturiko ekintza eta neurri guztien ondorio izan da hedabideetan izandako oihartzuna.

• **Bide judiziala.** AFEM medikuen elkarteak eskatuta, txosten legala burutu zen 2013an, plana Espainiako Konstituzioaren aurkako zela baieztatzen zuena. Auzitara jo zuten ondoren eta Madrilgo Epaitegi Gorenak arrazoia eman die: “zuhurtziaz indargabe” utzi du PPren pribatizazio plana.

• **Desgaste politikoa.** Auzitegiak prozesua eten duen arren, eta ez ilegalizatu, amore eman du Madrilgo presidentek eta dimititu egin du Osasun kontseilariak: bertan behera utzi dute pribatizazio plana. Politikoki oztopo eta zama bihurtzea izan da lorpenaren funtsa. Azken finean, politikoki –datozen hauteskundeak ere buruan– desgaste izugarria izango litzateke proiektuarekin tematzea. Horretarako, aurreko puntu guztiak izan dira beharrezkoak.

Haserre daude herritarrak, kalea denona dela aldarrikatzeko gogoz, eta Euskal Herrian ere ugari dira adibideak. Azken lorpena gurean, mugimendu herritarren presiotik abiatuta erraustegia eraikitzeke proiektua bertan behera uztea –Madrilgo ereditik desberdintzen den bidea egin duena–. Abortuaren erreforma, etxe-kalera-tzeen legea, LOMCE, Falloux Legea, AHT... Erronkak ez dira gutxi eta komeni da eraginkorrak izan diren estrategia batzuk eta besteak aztertzea, herritarren boterea baliagarria izan dadin. ■

